



MUSIKA

Anita handia

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ahots ederreko abeslariak daude, ahots ez hain harrigarriarekin baina adierazkortasun plusa dutenak ere bai, eta hortik aparte, artista handiak ere badaude, gehiago edo gutxiago gustatuko zaizkigunak, baina botere eta grina artistiko harrigarriaren jabe direnak. Azken multzo honetan Anita Rachvelishvili mezzo georgiar bikaina sailkatu behar dugu. Ahots eta musika fenomeno da eta ez du inor axolagabe uzten, bere ezaugarri artistiko harrigarriak direla eta.

Euskalduna Jauregiko agertokian bere presentzia indartsua eta sendoa zen, eta ñabarduraz eta indarrez beteriko bere mezu artistikoaren boterea iragartzen zuen, dudarik gabe. Emakume puska!

Mezzosoprano georgiar harrigarri honetaz inpresio gehien eragiten duena, zalantzarik gabe, bere ahotsaren botere izugarria da; erresonantziak eta kolore distiratsuz betea bere erregistro agudoan, fin eta garbia –baina indartsua–, eta sakona, oso haragitsua, gogorra batzuetan eta tinbre ia lehorrarekin grabeetan.

Eroso sentitu zen errusiar errepertorioan, batez ere Rachmaninoven abestietan, baina agian finetasun apur bat falta izan zitzaion Txaikovskyren abesti sentituetan. Hala ere, Manuel de Fallaren *Zazpi abesti herrikoi espainiarrak*, ondo gauzatuak, arraro gelditu ziren gure belarrientzat. Rachvelishviliren ahotsaren perfekzio bokala, biribiltasun eta iluntasun erakar-

garriak, agian, soberan zeuden nolabait, eta ez genuen sumatu ere egin intentzio, grazia edo adierazkortasunik, abesti horiek eskatzen duten moduan.

Operako ariei ekin aurretik, Rachvelishvilik Tosti-ren bi abesti oparitu zizkigun: *Non t'amo più* eta *Tristezza*, adierazkortasunez eta lirismo gozoz beteak.

Eta opera iritsi zen. Ahots horrekin, oro har oso ederra, boterez betea eta

**OLBEK ANTOLATUTA.
TXAIKOVSKY,
RACHMANINOV, FALLA,
TOSTI, VERDI,
MASSENET ETA
SAINT-SAËNS-EN LANAK**

**ANITA RACHVELISHVILI
MEZZOSOPRANOA.
VINCENZO SCALERA,
PIANO**

EUSKALDUNA JAUREGIA
OTSAILAK 27



ABAO BILBAO OPERA

akatsik gabeko kantu-lerroarekin, taxuz abestu zuen *Il Trovatore*-ren *Stride la vampa* aria, modu elektrizatzailean; eta ez zen gutxiago izan Don Carloren *Nel giardino del bello, saracin ostello* lanean. Ikusleek txalo zaparrada eskaini zuten, bi interpretazioek benetan merezi zuten gogo biziz. Eta piano interludio labur baten ondoren, Rachvelishvilik Saint-Saëns-en *Samson et Dalila* operaren *Mon coeur s'ouvre à ta voix* eskaini zuen, are sendoago, are adierazkorrago, benetan liluragarria zen ahotsa luzituz. Errezitaldiko onena izan zen, txalo zaparradaz eta kemen handiz saritua. ●